

Alaitz San Roman

ALTZAKO LIZARDI BASERRIA

Dударик gabe Euskal Herriko ezaugarri ezagunetarikoa bat gure mendi eta haranetan aurkitzen diren baserriak ditugu. Mendeetan zehar nekazal munduko oinarri izanik, euren inguruan bizitza sozial eta ekonomiko bat eratuz.

Baserriaren jatorria finkatzeko orduan, hipotesi ezberdinak aurkitzen dira, baserria definitzeko erizpideen arabera. Horrela, zentzu ekonomiko ertsi batetik begiratuta, hots, nekazal gizarte baten ekoizpen familiarreko oinarritzko zedula bezala, badirudi Erdi Aroan sortutako fenomeno dugula, XII-XIII. mendeetan hain zuzen ere. Baserrien eredu arkitektonikoa, aldiz, irizpide bezala hartuta, gehienez jota bostehun urtetako bizitza izango lukete, euren agerpena XV. mende bukaeran edota XVI. mende hasieran kokatuz.

Azken hipotesi honek du dudarik gabe sinesgarritasun handiena, XV. mendean zehar, besteak beste Enrique IV.ak ahaide nagusien kontra hartutako neurri gogorrei esker, (haien dorretxe asko botaz eta ahaide nagusi batzuk Granadako mugara erbesteratuz), Euskal Herria bi mendetan zehar gogorki astindu zuen biolentzi giroaren bukaera pizten baitzen, Bandoen arteko borrokari amaiera emanez. Lasaitasun giro berriak, hiribilduetatik at iharduera ekonomikoak aurrera eramanez zitzaketan nekazal bizileku berrien sorrera ahalbidetu zuen. Baserria jaiotzen ari zen.

Gaur egun oraindik XVI. mendean eraikitako ehundaka baserri gelditzen dira Gipuzkoan, eta harrigarria bada ere oso maila altukoak dira euren harri eta zurezko material eta lanak, askotan, geroago egindako eraikuntzetan baino kalitate hobea dutenak. Mende honetan Gipuzkoako haranetan produzitzen ziren fruitu nagusiak sagarrak eta garia ziren, bizilekuaren arketekituran isladatzen zelarik. XVI. mendea, seguruenik, baserri gipuzkoaren etaparrik zoriontsuena izan zen, lurraren jabetza era nahiko on batean banaturik zegoelako.

Sagardo, gaztain, haragi eta behi larruaren salmenta baserriaren gutxienezko sarrerak biltzen zituen eta herriekiko merkatuek, lurraldeak zuen defizita; adibidez, Nafarroatik edo Gaztelatik zetorren gariarekin.

HISTORIA

Lizardi baserriari buruz ditugun lehenengo datuak XVII. mendekoak dira, 1625. urtekoak hain zuzen ere. Urte honetan Lope Martinez de Isastik idatzitako *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa* esaten zaigunez, Donostiako harresietatik at, bain hiriaren jurisdikzioan aurkituko litzateke Lizardi oinetxea, garai honetarako jada eta Loperen hitzetan, aintzinako oinetxea litzateke¹. Aipamen honek Lizardi baserriaren jatorria gutxienez XVI. mendean kokatzera eraman behar gaitu, ez lukelako zentzu handirik izango XVII. mendean eraikitako etxe bati “aintzinako” adjektiboa lotzea. Hipotesi hau egiazta daiteke 1465. urteko agertutako Ordenantza batekin, bertan dagoeneko Lizardi baserria jaioa zela ziurtatzen da². XVI. mendean zehar ere zenbait aipamen aurki daitezke, Lizardiko jabeak inguruan zeuden baserriko jabeekin zituen liskarrei buruz; baina honekin baka-rrik ziurta daitekeena da baserriaren existentzia.

1. MARTINEZ DE ISASTI, Lope eta beste batzuk, *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa* Ignacio Ramón Baroja, San Sebastián, 1850, 96. or. “Fuera de los muros de la villa (Donostia) en su jurisdicción **son casas solariegas antiguas** la de Pello, Algarbe, Parada, Arnao, Arnao, Zarategui, **Lizardi**, Portuechea, Gomiztegui, Aliri... Urdinzu, ~~Arate~~”. Oso interesgarria da ere, Isastik Donostiako harresien barne kokatzen diren oinetxei buruz aipatutakoa, egilearen arabera “Esta villa (Donostia), aunque la juzgan por muy antigua, piensan algunos que dentro de los muros no tiene casas solariegas, sino fuera. No me pongo á averiguar lo que hay en esto. Cumpliré con señalar las casas antiguas”. Lopek Donostiako hiribilduaren barne kokatzen ziren oinetxeen existentzia, gutxienez zalantzan jar-zen duen bitartean, ez du inolako zalantzarik agertzen harresietatik kanpoko etxe batzuen izaera azpi-marratzeko orduan.

2. Donostia, 1465-VII-18. “Estatuto y ordenandas para el cuidado del ganado, dado ~~para~~ **beneficio** donostiarra a la Universidad de Alza “Miguel de Liçardi, señor de Liçardi, buen morador ~~en~~ **casas** de Alza”. A.R.C.V.

Loperen aipamenak duen bigarren adierazpen interesgarri bat, Lizardi oinetxearen kokapenarena dugu, esan bezala Donostiako barrutiaren barne lekutzen baitu, Altzak bere barruti propioa zuen garai batean. Itxurazko kontraesan honen azalpena, baserriaren kokapenean aurki daiteke, Donostia eta Altza banatzen zuten mugarrietako bat Lizardi baserriko lurretan kokaturik baitzegoen, nahiz eta etxea berez Altzan egon³.

10 urte beranduago, 1635. urtean Altzan egindako alarde bati esker, Lizardi oinetxearen Altzatartasunaren baiespena aurkitzen dugu, Altzan armatu zen jendearen zerrendan Lizardi etxeko jabearen berri ematen baitzaigu, *Domingo de Liçardi, dueño de la casa de Lizardi* zuzen ere⁴. Zerrenda honetan agertzen diren 69 pertsonetatik bakarrik 19 pertsona agertzen dira ordezkatzeko duten etxearen jabe moduan (horietatik bi *diputado armadogisa* agertzen direlarik), gainontzekoak euren etxeetako *casseo* bezala agertzen diren bitartean eta bakarra etxe baten *moradogisa*. Alardeko kideen arteko ezberdinketa hau, dudarik gabe garaiko mailaketa sozialaren berri ematen digu, orokorrean zerrenda honetan jabeak diren pertsonak, hamar urte lehenago Lope Martinez de Isastik aintzinako oinetxe bezala finkatzen baitzituen (Arzac, Berra, Casares, Aduriz, Sius, Larracho, Tomasena, Arnaovidao, Aduriz eta nola ez Lizardi)⁵. Hamar urte igaro ondoren pertsona berriak Altzara heldu zirela ikus daiteke, aurreko oinetxeak erosiz edo bertoko leinuekin bat eginez (Ezcurrechea Chipres etxeko jabe da orain edota Echeverria Adurizekoa), eta beste batzuk tokiz aldatu zirela, euren etxeak salduz edo maiztertzan utziz (Joanes de Migueltoarena Gomiztegi etxeko *cassera* da orain eta Pascoal de Larrachao Mercader etxekoa).

Beraz, duda handirik gabe esan daiteke 1635eko alardeari esker egindako zerrendan, Altzako familia aberatsenak agertzen zaizkigula, gehienetan bertoko leinu zaharren ordezkariak eta euren etxeetako jabeak direnak. Hauen aurrean eta beheko estratu batean, nekazari xumeagoak aurkituko genituzke, euren etxeetako *casseo* zirenak. Hots, euren baserrietako jabe, nahiz eta sozial eta ekonomikoki maila baxuago batean egon.

3. UBILLOS, Mikel, "Estudio de los límites del antiguo municipio de Alza" in *Hautsa kenduz* I Altza, 1988, 20.or. Mugarri honen kokapenari buruz esaten zaigu XX. mendeko hasieran Lizardi ingurunean zegoela "... a unos cuarenta metros de distancia en dirección E. del caserío Lizardi."

4. ZAPIRAIN, David, "Altzako alardea 1635. Urtean" in *Hautsa kenduz* Altzako Historia Mintegia, Altza, 1996. Altzan burututako alarde hau, Frantzia eta Espainia artean sor zitekeen liskar militarrenako prestatzeko burutu zen. "En primero de julio de 1635, día domingo, a las dos horas después del mediodía, hizieron vezinos y moradores de la tierra y lugar de Alça, alarde y muestra de la gente y armas, que abía en la dicha tierra, anten Joan de Leyça, alcalde hordinario de la villa de S.S., y el capitán Lorenzo de Urbieta, vezino de la dicha villa, se allaron los siguientes vezinos armaños..."

5. MARTINEZ DE ISASTI, Lope. *Op. Cit.* 95-96 orr.

Gauzak horrela, ikus daiteke XVII. mendeko lehen erdialdean Lizarditarrak Altzako aintzinako leinu zaharren artean kokatzen zirela, abizena ematen zien etxeko jabe zirelarik. Euren aktibitatei dagokionez ezin da ezer zihurtatu, baina ez dugu uste aspaldi aberastutako nekazariak baino izango zirenik. Behar bada burgesiaren lerroetan kokatzea izango litzateke zuhurrena, batez ere kontutan izanik, aurrean aipatutako lanean Lope Martinez de Isastik Donostiako *Juan de Lizardibat* aipatzen duela *dueño y fabricante de nabezala*⁶. Kontutan izanik garai hanetako Gipuzkoan Lizardi abizeneko hiru familia soilik zeudela, eta horietako bi Oiarzun eta Irunen kokatzen zirela, horregatik zuhurra litzateke Juan de Lizardi hau Lizardi oinetxeko kidea zela pentsatzea.

Lizardi etxearen berri ematen dizkiguten hurrengo datuek XVIII. mendeko bigarren erdialdera eramaten gaituzte, 1761. urtera, non Juan Guruceaga Arrieta bertoko *moradobezala* agertzen zaigun⁷.

Momentu honetan Urumeako mendi frankoen erabilpenaren inguruan, Altzako biztanleriaren arteko gatazka bat bizitzen ari zen. Mendi hauetatik ateratzen ziren produktuak (egurra, bedarra, ota, iratxeak...) oso preziatuak ziren nekazal erabilpenerako eta arazoan etengabeko iturri bihurtu ziren XVIII. mendeko altzatarren artean. Garai honetan Altzako gizartea bi talde handitan banaturik zegoen, alde batetik altzako "auzotarrak" (*vecinos*) ditugu, oinetxkeen jabeak zirenak eta bertan "betidanik" bizi zirenak. Beste alde batetik XVII. mendeko hazkunde ekonomikoarekin heldutako jende genuke, *moradoresak*.

Auzotarren boterea, jabego kontzeptuan oinarritzen zen, estatus honek tokiko gestioa kontralatzeko ahalmena ematen zietelarik eta horrekin batera "auzotar" maila. *Moradoresak*, aldiz, maizterrez osoturiko taldea ziren, Altzara heldutako populazioa edo leinu nagusietako ondokosemeak. "Auzotar" maila edota jabegoa ez izateak, tokiko udal karguetatik at uzten zituen, nahiz eta kopuru mailan "auzotarrak" baino ugariagoak izan.

Ikus dezakegunez beraz, 1761erako Lizardi oinetxea jada, ez zen Lizardi leinuko bizitokia (nahiz eta seguruenik haien ondasuna izan), baizik eta Guruceaga familiakoa, bertoko maizterrak zirelarik. Horrela, maiztertzan uzterakoan, nekazaritza eta abeltzantzara dedikaturiko etxebizitza familiarrean bihurtu zen heinean, Lizardi oinetxea baserri izatera pasa zela esan dezakegu.

6. *Ibidem* 3. Liburua, 7. Kopia, 15. Zbk.

7. MORA, Juan Carlos, "Los montes francos del Urumea" in *Hautsa kendu* II, AHH, Altza, 1996, 47. or.

Lizarditarrei dagokionez ez dakigu non finkatu zuten euren egoitza berria, baina ez litzateke zaila izango, untziolek sortutako etekinei esker Donostiara mugitu izana, euren sortetxea maiztertzean alokatuz.

Maiztertza kontratuak ez ziren oso epe luzeak izaten industrializazio aurreko Gipuzkoan, orokorrean lau eta hamar urte artekoak izan ohi zirelarik⁸. Kontratuen luzerak errenten igoketa ahalbidetzen zuen, neurri berean jabeen eskuetan jartzen zuelarik maizter berriak izendatzeko aukera. Dena dela, orokorrean ez zen arazorik ematen jabe eta maizterren artean, horrek hitzarmenak berritzeko laguntzen zuelarik, batzuetan maiztertza seme-alabei ere igarotzera hel zitekeekarik.

Azken kasu hau Lizardin aurkitzen dugu, Juan Guruceaga maizterren ondorengoek gutxienez XIX. mendera arte izan baitzuten alokatu base-
rria. Guruceagaren emaztea hiltzean, hau, bigarren aldiz ezkondu zen, orain-
goan Ana Maria Arrillaga Garaikoechea hartu zuelarik ezkontidetzat. Emakume honen kasuan ere, ezkontza ez zen gauza berria, alarguna izateaz gain seme bat baitzuen. Seme honek hain zuzen ere, Joseph de Hoa-k, jarauntzuko zuen Lizardi baserriko maiztertza. Horrela, Lizardin jaiotako Hoa sendiko lau belaunaldi hasiera ematen zitzaizolarik:

- 1785 Juan Luis Hoa Guruceaga
- 1831 Miguel Antonio Hoa Otermin
- 1856 Dolores Hoa Esnaola

Dolores Hoarekin Lizardi baserriko arrastoa galtzen dugu, behintzat 1910 arte, non, Josefa Arregi eta bere senarra aurkitzen ditugu bertako maizterrak bezala. 1926 an Josefa Arregik alargundu zuen, ondoren Jose Iruretagoienarekin ezkonduz. Lizardiko maiztertza senar-emazte berrira igaro zen.

1940 an Jose Iruretagoienak Lizardi erosteko pausua ematea erabaki zuen, horretarako 150.000 pezetako mailegua eskatzeko beharrean ikusi zen, horixe izan baitzen Elio Elio Magañón, Vellosako Marquesak Lizardi baserriaren truke eskatutako kopurua.

Jasotako kreditua itzuli ahal izateko, Iruretagoienak baserriko basotik ahal zuen egur guztia ebaki zuen, eraikuntza material bezala salduz. Zuhaitzen motzondoak ere ikatza egiteko saldu behar izan ziren. Lan guzti

8. SANTANA, Alberto, *Baserria* Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1993, 30. or.

hauetan Lizardirekin muga egiten zuten baserriek lagundu zuten: Basotxiki, Sagastieder eta Zarategi.

Baserriaren jabe berria lan hauetan hil zen, zuhaitz motzondoak ateratzeko erabiltzen zen dinamita karga batek eztanda egin baitzion. Horrela, baserria bere seme Placido Iruretagoienaren esku gelditu zen, gerora Lizardiren azkenengo jabea izango zena.

1968 an Lizardi baserria desjabetzeko eta ondoren herrautsia izateko agindua heldu zitzaien iruretagoienarrei. Baserriaren truke 2.236.823 pezeta jaso zituzten, eta Lizardiko lurren truke 165.570 pezeta. Iruretagoienatarrek euren etxe kutuna indarrez kentzen zieten bitartean, Altzak ere bere historiaren zatirik zaharrenetariko bat galtzen zuen.

Ezaugarriak

Deskribapena hasi baino lehen argi utzi beharko litzateke, Lizardi baserria ez zela “nekazal gune” moduan eratu, horregatik aurkituko ditugun zenbait ezaugarri ez dira bat etorriko ohizko euskal baserriaren ezaugarriekin. Bere egitura deskribatzerakoan nabarituko dugu, hor daukagu bere oinplanta karratua eta lau isurialdeko teilatua.

Lizardi baserriaren ezaugarriei dagokionez, 1968an herrautsia izan zenean, baserriak hamar hektarea inguruko zabalera zuen, bertan hiru esparru ezberdintzen zirelarik: basoa, ortua eta larreak. Basoa berez (gaur egungo Txarari izena eman diona), aintzinako basoaren zantzua zela esan daiteke, 1940 tik aurrera egindako basamozketaren ondoren haritz eta intxaurrondo gutxi batzuk baino gelditzen ez baitziren. Ortuan, mota askotako barazkietaz gain, ingurune hauetan arraroak diren orriburuak eta zainzuriak landatzen ziren. Produktu guzti hauek, bertokoen sostengurako eta Donostiako San Martin merkatuan saltzera bideratzen ziren. Azkenik, larreetan bi aktibitate garatzen ziren, alde batetik behi eta idientzako bazkalekua baitziren (hamai-ka behi eta bi idi), eta bestetik fruitarbolen kokagunea. Azken bi aktibitate hauek etekin ekonomiko garrantzitsuak eskeintzen zitaizkion Lizardi baserriari, behietatik ateratako esnea San Ignacio eritetxeari saltzen zieten heinean, sagarrondoetatik sagardoa prestatzeko sagarrak biltzen baitziren.

Ikus dezakegunez, nekazaritza eta abeltzantza uztartzen zuen lanari esker baserriaren jabeagoak lurretik bizitzeko beste eskeintzen zuen.

Eraikinean finkatuz, baserria oinplanta karratukoa zen. Bi solairu eta ganbara batez osaturik zegoelarik. Solairuka 300 m² zeuden. Baserriaren estruktura egurrezko sei zutabei esker sostegatzen zen, eta euskal baserrian ohikoak diren banaketak agertzen ziren, nekazal eta abeltzantza lanei eran-

tzuteko aproposak. Beheko solairuan, ikuilua, idi aska, sukaldea eta lanabesak gordetzeko tokia kokatzen ziren, animalia eta pertsonentzako sarrera ezberdinduak zeudelarik. Bigarren solairuan bizilagunen logelak zeuden, eta azkenik ganbaran, sagardoa prestatzeko tolarra, nekazal produktuak eta lasto sortak gordetzeko tokia. Eraikina osatuz baserriak bere bereizgarrietako bat zuen, lau isuri aldeko teilatua.



Iturria: LAZCANO ARISTIMUÑO, Patxi, “*Historia de San Sebastián, Altza eta Intxaurreondo*”, Donostia, 1996

Aurretik esan dugunez, Lizardi oinetxearen eraikuntza XV. mendean edo lehenago eman zela ziurta daiteke. Gainera tipologikoki garai hontako baserri gipuzkoarretan ematen ziren ezaugarrietako batzuk zituen, harlanduz egindako lau fatxadak edota oiplantaren zabaltasuna bezala. Gainera Lizardik ez zeukan berpizkundeko baserri hauek agertzen ez zituzten ezkaratzik, ez etxebizitzatik kanpora joateko balio zezaketen bestelako aterperik ere.

Dena dela, horiek dira Lizardik berpizkundeko harrizko baserriekin agertzen zituen ezaugarri amankomun bakarrak, gainerakoek XIX. mendeko baserrietara lotzen baitzuten. Gipuzkoar baserrien azkenengo belaunaldiak, XIX. mendekoak, uko egin zion ezkaratzak erabiltzeari, bizimodu isilago eta zuhurragoa izatearen aldeko apostua eginez, eta etxeko arkitektura arrazionalizatzeko ere. Ematen du XIX. mendeko baserriek atzerantz begiratu zutela, berpizkunde garaiko tradizioari. Edozein modutan, badago funtsezko ezberdintasunik bi eredu moten artean, hiru mendeko bilakaeratik sortua. XIX. mendean lehiu berdina eta ondo antolatua nabarmentzen dira, neoklasizismo garaiko eraikin guztiei ezartzen zitzaien arrazionalismo irizpideari jarraiki.



Lizardi baserria, 1950. urtea

Beraz, ate eta leihoen antolaketa zorrotza, Lizardi baserriko planoan ikus dezakeguna da. Lizardi baserrian bi garai ezberdin nabarmentzen zirela dirudi, baserriaren fundazioarena, XVI. mendean eta ondoren egindako moldaketa bat, ziurrenik XIX. mendean. Hipotesi hauek indartuz Lehen Guda Karlistan (1833-39) Lizardik jasandako sutea aurkitzen dugu, baserriko barnekalde osoa berriz eraikitzea behartu zuena⁹, eta behar bada kanpokaldearen moldaketa bat ere, garaiko joera arkitektonikoak jarraituz.



Iturria: LAZCANO ARISTIMUÑO, Patxi, "*Historia de San Sebastián, Altza eta Intxaurren*," Donostia, 1996

9. ROQUERO, María Rosario, "La primera Guerra Carlista y sus consecuencias (1832-1862)" in *Hautsakenduz IV*, Altzako Historia Mintegia, Altza, 199, 124.or.

BIBLIOGRAFIA

- FERMIN, Agustín, “Trayectoria de los Hoas en Alza” , in *Hautsa Kenduz V*, Donostia, 1999. 49-57 orr.
- LAZCANO ARISTIMUÑO, Patxi; *Historia de San Sebastián, Alza e Intxaurren*, Donostia, 1996.
- MARTINEZ DE ISASTI, Lope eta beste batzuk, *Compendio historial de la M.N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Ignacio Ramón Baroja, San Sebastián, 1850
- MORA, Juan Carlos, “Los montes francos del Urumea” in *Hautsa kenduz III*, AHH, Donostia, 1996, 37-50. orr.
- OSORO, Koldo, *El caserío: historia socioeconómica y etnográfica*, Club Deportivo Eibar, Donostia, 1978.
- ROQUERO USSIA, María Rosario; “La primera guerra Carlista y sus consecuencias (1832-1862)”, in *Hautsa Kenduz IV*, Donostia, 1997. 103-132 orr.
- SANTANA, Alberto; *Baserria, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Turismo Departamendua*, Donostia, 1993.- UBILLOS, Mikel; “Estudio de los límites del antiguo municipio de Alza”, in *Hautsa Kenduz I*, Donostia, 1988. 13-49 orr.
- ZAPIRAIN, David, “Altzako alardea 1635. Urtean” in *Hautsa kenduz III*, Altzako Historia Mintegia, Donsotia, 1996. 31-35 orr.